



**Arartekoaren 2015R-497-13 Ebazpena, 2015eko uztailaren 3koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etenaldiaren iraupena berraztertzeko.**

### Aurrekariak

2013ko otsailaren 11n, (...)k abiarazitako kexa bideratzea onartu zen. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eten izanak eragin zuen kexa.

Zehazki, kexagileak baieztatu egin du 2012ko urriaren 1ean eten ziotela prestazioa, aurretiko jakinarazpenik egin gabe. Hilari zegokion nomina ordaindu ez ziotela ikustean izan zuen etetearen berri. Beraz, Lanbideren bere bulegora joan zen, horretarako arrazoiez galdezka. Prestazioaren behin-behineko etetea gertatu zela jakinarazi zioten bertan, izan ere, dirudienez, kexagileak ez zion bere bizilekura bidalitako dokumentazio errekerimendu bati erantzun. Era berean, ediktu jakinarazpen baten berri eman zioten, 2012ko irailaren 12an EHAAn argitaratu zena, eta aipatu espedienteari eragin ziona.

Ediktu jakinarazpenean jakinarazi zitzaion kexagileari igorritako idazkia Lanbidek gauzatutako errekerimendua izan zela, zegokion bulegora bertaratu zedin. 2011ko abenduan diru-sarrerak bermatzeko errenta baten titularrak ziren guztiei igorritako bidalketa masibo baten baitakoa zen aipatu errekerimendua, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketaren transferentzia jaso zuenean igorri zena. Jakinaenez, Arartekoaren 2014ko urriaren 28ko 2014R-744-13 Ebazpena eragin zuen Lanbideren jardura horrek. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatu zitzaion efekturik gabe utz zezala diru-sarrerak bermatzeko errenta baterako eskubidearen etetea<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3542\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3542_1.pdf)

Sakonak izateko asmorik gabe, gomendioaren zati mamitsu bat transkribatuko dugu: *“2012ko apirilean eta maiatzean, sarrerak bermatzeko errentako prestazioen zenbait jasotzailerik gutun bana bidali zitzairen, hartu-agiriarekin. Pertsona horiei, aurretik, informazio-gutunak bidali zitzaizkien, hartu-agiriarekin, Lanbidek eskumenak bereganatzeari buruz, baina Posta zerbitzuak itzuli egin zituen. Abenduko gutunak posta ziurtatuaren bidez bidali ziren, eta apiril eta maiatzekoak jakinarazpen bidez. Lehenengo gutuna itzulia izan zen pertsonen kasuan, beste bat bidali zitzairen apirilean, eta hor azaldu zitzairen erroldatze ziurtagiria aurkeztu behar zutela, helbideko datuak erkatzeko eta bizilekua egiaztatzeko. Gaineratu zuen bi gutunei erantzun ez zieten pertsonak ez zutela jakinarazi helbidea aldatu zutenik; gainera, ez zegoen inolako komunikaziorik izapidetzeke. Horregatik, indarreko errolda-agiria aurkezteko aginduaren jakinarazpena EHAAn argitaratu zen. Jakinarazpena argitaratu eta 15 egunetara, prestazioa eteteke prozedura hasi zen, eta prestazioa ordaintzeari utzi zitzaion, une horretako egoeraren berri ez jakitearen ondorioz”.*



Aipatu errekerimendua eskura eman ondoren, lehenagoko bizilekuari zegokion helbidera bidali zela egiaztatu zuen kexagileak.

Jakinarazpenetan okerra egon zitekeela pentsatuta, Arartekoak idazki bat igorri zion Lanbideri 2013ko otsailaren 18an. Bertan, behin-behineko etetea burutzeko jarraitutako izapideei buruzko informazioa eskatu zitzaion, bai eta etetearen iraupenaren gaineko aurreikuspenei buruzkoa ere; izan ere, kexagileak 2012ko azaroaren 6an aurkeztu zituen arrazoibideak, eta hiru hilabete igarota ere, etenda jarraitzen zuen bere diru-sarrerak bermatzeko errentak.

Errekerimendu bat igorri ondoren, Lanbideren erantzuna jaso zen 2014ko apirilaren 16an. Horren bidez, etetea burutzeko jarraitutako izapideez aritu zen erakunde autonomoa, modu orokorrean, behin-behineko etetea eta jakinarazpenetan egon ahal izan zen okerra aipatu gabe. Era berean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren abonua 2013ko ekainaren 1ean, kexagileak xede horretarako egindako eskaeraren ondoren, berrabiarazi zela jakinarazi zen.

Lanbidek emandako informazioa osoa ez zela pentsatu zuenez erakunde honek, bigarren idazkia igorri zitzaion 2014ko abuztuaren 1ean. Oraingo horretan, kexagileari igorritako jakinarazpenei buruzko izapideen gaineko azalpena eskatu zen, horiei arreta ez emateak eragin baitzuen etetea.

Errekerimendu bat bidali ondoren, 2015eko martxoaren 31n sartu da Lanbideren erantzuna.

Lanbidek 2012ko urriaren 19an hasitako etete prozedura baten berri eman du. Idazki baten bidez saiatu ziren aipatu izapidea kexagileari jakinarazten, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren behin-behineko etetearen berri eman zitzaion, era berean, bertan. Aipatu errekerimenduari ez erantzuteak eragin zuen hori guztia.

Hala ere, Lanbidek jakinarazi du kexagileak 2012ko otsailaren 9an eman zuela bizileku aldaketaren berri, eta horrek ez zuela efekturik izan bere espedientean, eta, ondorioz, kexagilearentzako jakinarazpenak jada bizi ez zen bizilekura igorri zitzaizkiola.

Informazio horren arabera, kexagileak aurkeztutako erroldaren datuek adierazi dute bost hilabete lehenago, 2011ko irailaren 16an, gertatu zela bizileku aldaketa; hau da, araudiak ezarritako hamabost eguneko epetik kanpo eman zuela horren berri, eta eteteko arrazoia da hori.





## Gogoetak

1. Honako betebeharra ezarri du 18/2008 Legearen 19.1i) artikulua: *"administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolana ere, kontuan izango dira gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak"*.

Lanbidek onartu egin du kexagilea jada bizi ez zen bizileku batera bidali zirela bai dokumentazio errekerimendua, bai geroko jakinarazpenak.

Aurretik, kexagileak jakinarazi egin zuen bizileku aldaketa, eta, hortaz, jakinarazpenetan, eteteko prozedura abiaraztekoan barne, okerra egon zela egiaztatu da (2012ko urriaren 18a), bai eta etetea jakinaraztekoan ere (2013ko maiatzaren 14an eskura emana).

Ondorioz, ezin daiteke onetsi etetea eragin zuen ez-betetzea gertatu zenik.

2. Arartekoaren informazio eskaerari erantzuteko bigarren idazkian, kexagileak bizileku aldaketaren komunikazioa 147/2010 Dekretuaren 12.1g) artikulua esleitutako 15 eguneko epetik kanpo egin zuela egiaztatu dela esanez erantzun du Lanbidek, izan ere, 2011ko irailean joan baitzen egun bizi den bizilekura bizitzera, eta 2012ko otsailean eman zuen aldaketaren berri.

Zehazki, zera adierazi zaigu: *"horregatik guztiarengatik erabaki da prestazioaren etetea mantentzea, betebeharrak bete ez direlako; bete izan balira, ez zatekeen zigortzeko prozedurarik egingo"*.

Espedientean dagoen informazioan, ez da zigortzeko prozedurarik ageri.

Era berean, Lanbidek Arartekoari bidalitako bigarren idazkian, ez da ageri bizileku aldaketa epez kanpo jakinarazi izanak prestazio ekonomikoak eteteko prozedura eragin duenik.

Gure ustean, 147/2010 Dekretuaren 12.1g) artikulua jakinarazpen mota horietarako esleitu duen epea bete ez dela egiaztatu izan balitz, xede horretarako prozedura hasi beharko zatekeen, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea ekarriko luke horrek seguruenik, bi xedapen aplikatzearen ondorioz: alde batetik, 18/2008 Legearen 19.1g) artikulua, betebeharrak haur ezartzen baitu: *"titularren ohiko bizilekuaren helbideari dagokionez edozein aldaketa egonez gero, horren berri ematea, erregelamendu bidez ezarriko den epean"*; eta, bestetik, araudi beraren 26.1b) artikulua: *"Diru-sarrerak*





*bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten egingo da, edozein izanik ere errenta horren modalitatea, arrazoi hauengatik: (...) Titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa eskuratzean bere gain hartutako betebeharren bat aldi batean ez betetzea”.*

Betebehar baten ez-betetzea eteteko ebazpena idatzi aurretik zuzentzen den kasuetan, esku artean dugun honetan bezalakoetan, alegia, zer egin aurreikusi du diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzeko araudiak; hau da, behin-behineko etetearen arrazoiak desagertu denean zer egin aurreikusi du: *“Etenaldi-kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, prestazioa eten ahal izango da kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango”.*

Lanbidek eteteko prozedura abiarazi zuenean, jada ez zegoen etetea eragin zuen arrazoiak. Hortaz, legezko aurreko xedapena aplikatuz, Lanbidek *kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez* ebatzi beharko luke eskubidearen etetea.

2012ko urriaren 1etik 2013ko ekainaren 1a bitartean eten zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea, hots, etetea eragin zuen ez-betetzeak baino gehiago iraun du etenaldiak. Izan ere, 2011ko irailean gertatu zen bizileku aldaketa, eta 2012ko otsailean jakinarazi zuen kexagileak zirkunstantzia hori.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

## GOMENDIOA

147/2010 Dekretuaren 45.1. artikulua aplikatuz, kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren etenaldiaren iraupena berrikusi dadila (2012ko urriaren 1etik, behin-behineko etetearen data, 2013ko ekainaren 1a arte, berrabiarazteko data), kontuan hartuta bizileku aldaketa jakinarazteko epea bete ez dela, eta ez-betetze horren arabera mugatu dadila etenaldiaren iraupena, jasotzeari utzitako zenbatekoak abonatzearekin bat.

